




GASTEIZEN 2018-2019. URTEAN

**SEXU ETA GENERO DIBERTSITATEAREN AURKA IZANDAKO
ERASOEI BURUZKO TXOSTENA**





EDIZIOA

Lumagorri Heterosexismoaren Aurkako Taldea
Elkartea

DATUAK

Gasteizko Transbollomarika sareak jasotako datuak

ELKARLANA

Gasteizko Udala
Berdintasun Zerbitzua

GASTEIZEN
SEXU ETA GENERO
DIBERTSITATEAREN AURKA
IZANDAKO ERASOEI
BURUZKO TXOSTENA

2018. APIRILETIK - 2019. MAIATZA BITARTEAN

GLOSARIOA

«**Zuzeneko diskriminazioa**»: egoera berean edo antzekoan egonda, pertsona bati beste bati baino tratu okerragoa ematen zaionean, haren sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kidea izateagatik: hara hor noiz dagoen zuzeneko diskriminazioa.

«**Zeharkako diskriminazioa**»: itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat ekar badakieke pertsona batzuei, euren sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kideak izateagatik: hara hor noiz dagoen zeharkako diskriminazioa.

«**Askotariko diskriminazioa**»: orientazio sexualagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kidea izateagatik diskriminatua izateaz gain, beste mota baten diskriminazioa ere jasaten denean, nazioarteko edo Estatuko legeetan jasotako motiboak direla-eta: hara hor noiz dagoen askotariko diskriminazioa. Berezi hartuko da kontuan beste faktore batzuk gehitu badaitezke genero-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kide izateagatik gerta daitekeen diskriminazioari, hala nola immigrantea edo ijito-herriko kidea izatea.

«**Diskriminazioa, harreman baten oinarrituta**»: LGBTI den pertsona, talde edo familia batekin harremana izatearen ondorioz egiten denean diskriminazioa.

«**Diskriminazioa, uste oker batean oinarrituta**»: iritzi oker baten ondorioz norbait diskriminatzen denean, haren sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik (lagun bat zein talde bat diskriminatu daiteke).

«**Jazarpen diskriminatzailea**»: norbaiten duintasunari eraso egitea edo kikilduta, areriotzat joa, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea helburu edo ondorio duen jokabide oro da jazarpen diskriminatzailea, sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo identitateagatik edo talde bateko kide izateagatik egiten dena.

«**Errepresalia diskriminatzailea**»: norbaitek tratu txarra edo ondorio txarren bat jasotzen duenean, sufritzen ari den edo sufritu duen diskriminazioa edo jazarpena saihesteko, gutxitzeko edo salatzeke asmoz, kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo edozein motatako errekurtsio bat aurkeztu duelako.

«**Bigarren mailako biktimizazioa**»: lesbiana, gay, transexual, bisexual, transgenero eta intersexualei gertatzen zaientzako kaltea, diskriminazioa, jazarpena edo errepresaliaren biktimak izateaz gain, beste ondorio batzuk ere sufritzen dituztenean arretoa txarra edo desegokia ematen dietelako administrazio-erakundeek, osasun-erakundeek, poliziak edo gaian zerikusia duen beste edozein eragilek. Batzuetan, inplikaturikotako beste eragile batzuen jardueraren ondoriozkoa izaten da.

«**Intragennero indarkeria edo Genero berekoen arteko biolentzia**»: ekintza biolentoak dira, sexu bereko bikote bateko bikotekide baten osotasun fisikoan, psikikoan, moralean edo bizitzan eragiten dutenak, eta bikotekideen arteko desberdintasun-egoera eta botere-harremana adierazten dutenak. Ekintza horiek ezkontide-ohien edo ezkontideen aurka egiten dira, edo, bikotekideen arteko elkarbizitza egon ez den arren, noizbait ezkontzaren bidezko antzeko harremanen bidez lotutako pertsona baten aurka.

«**Genero-indarkeria**»: gizon batek emakume baten kontra erabiltzen duena, emakumea diskriminatzeko eta gizonek emakumeen aldean historikoki izan duten abantailazko eta desberdintasuneko posizioari eusteko.

«**Iseken delitu arina**»: arau-hauste bat da, eta honetan datza: mehatxatzean, jazarpena egitean, kaltea eragitean edo sufriaraztean.

«**Bullying-a**»: ikasleen artean behin eta berriz errepikatzen den tratua txar psikologikoa, edozein motatakoa dela ere: ahozkoa zein fisikoa.

«**Cruising-a**»: sexu-harremanak izateko baliatzen diren aisialdi eta olergeta-espazioak. Gehien bat, gay kolektiboak erabiltzen dituzten espazio horiek.

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA
2. HELBURUAK
3. ORAINGO TESTUINGURUA
4. METODOLOGIA
5. DATUEN AZTERKETA
6. ISLA KOMUNIKABIDEETAN ETA ERANTZUN-EKINTZAK
7. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK
8. GOMENDIOAK
9. BIBLIOGRAFIA

1. SARRERA

Bigarren urtez jarraian, “Sexu- eta genero-dibertsitatearen aurka Gasteizen izandako gorroto-delituei buruzko txostena” aurkeztera gatoz. Lumagorri, Heterosexismoaren aurkako Taldeak egina da, Gasteizko Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren eta Gasteizko Sare Transbollomarikaren lankidetzari esker. Honela, aurrera jarraitzen dugu, homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobiari dagokienez gure hirian bizi dugun benetako egoera ikusarazteko 2018an urratu genuen bidean.

Hala, bada, txosten honen bidez berriz izango duzu aukera zera egiaztatzeko: oraindik ere hementxe dugu LGTBI+ jendearekiko gorrotoa, gure jendartean. Iaz baino kasu gutxiago antzeman ditugun arren, ohartu gara, halaber, kristalezko sabai moduko bat dagoela kasuak antzemateko orduan, eta gainditu beharreko sabaia da, LGTBI+ jendearen errealitatea hobeto ezagutu gura izanez gero.

Hain zuzen ere, sabai hori gainditzeko, Lumagorri, Heterosexismoaren Aurkako Taldean azken bi urteotan egindako lanetik ondorioztatu dugunez, ezinbestekoa da Sexu- eta Genero-Dibertsitatearen aurkako Gorroto-Delituen Gasteizko Behatokia sortzea, proiektu hori funtsezkoa baita dibertsitatearen eta giza eskubideen aldeko politika publikoen abanguardia izan dadin gure hiria.

Iaz geroztik ere abian da Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Sarea. Haren helburuen artean dago, besteak beste, kasuak antzemateko esperientziak trukatu eta haiek erregistratzeko jarraibide erkideak ezartzea, metodologia berberari jarraikiz lortu ahal izateko datuak, eta, behin lortuta, datuok erkatzea egon dadin. Egia bada ere oraindik ez dagoela erabat definituta metodologia erkide hori, urratutako bidea oso itxaropentsua da, lehenengo fruituak ematen hasiak baitira zenbait komunitatetan eta hiritan sortutako behatokien arteko sinergiak.

Bestalde, aurten ikusi dugu zelan ugaritu diren gorroto-delituak jendartean, inoiz baino oihartzun handiagoz, gainera: lehen ezkutuago zegoen diskurtso homofoboa eta transfoboa agerikoa da orain prentsako titular handietan, eta ordu ugari hartzen ditu telebistan, irratian eta interneten. Sare sozialek ere zerikusi handia jokatu dute diskurtso-mota horiek hedatzen. Seguru aski, hurrengo hilabeteetan eta urteetan, eskuin muturrekoak parlamentuen eta erakundeen bozgorailuak eskuratu ahala, jarraitu egingo dute diskurtso horri oihartzuna ematen, are eta

gehiago ere. Eta guk Europa osoan ageri den joera horren aurka borrokatu behar dugu, errotik kentzeko premia dagoelako.

Momentuz, badirudi Gasteizez dela lekuri txarrena aipatutako guztiari dagokionez, baina, hala eta guztiz ere, ezin gara besorik beso geratu, txosten honetan jasotzen denez, gure hirian ere alarmak pizteko moduko kasuak ditugulako. Izan ere, gure artean nagusi da arau zisheterosexuala, bizi-bizirik dago, haren aurka egiten ahalegintzen garen arren; bide luzea geratzen zaigu, horrenbestez, arazoaren errora heltzeko. Bitartean, guk bide hori ibiltzen engaiatuta jarraituko dugu, edozein erasorik salatzen prest. Erasorik ez, erantzunik gabe.



2. HELBURUAK

Hona hemen Lumagorri- Heterosexismoaren Aurkako Taldeak egindako bigarren txostenaren helburua: gure udalerrian eta gure lurraldean zer gertatzen den ikusarazten jarraitzea, egitura sozial eta kultural normatiboek jarraitzen baitute ahalegintzen irmotasunez benetako errealitatea ikusezin bihurtzen.

Gasteizko Sare Transbollarikarekin lankidetzan, Lumagorri-Heterosexismoaren Aurkako Taldeak 2018an egindako lehenengo txostena oso aurrerapauso garrantzitsua izan zen. Hori horrela, bigarren txosten honetan azpimarratu nahi dugu lan hau profesionalizatzeko premia dagoela, mota horretako erasoekin lotutako datuak antzemate aldera. Izan ere, zailtasunak izaten ditugu mota horretako erasoak antzemateko, jasotzeko eta tratatzeko orduan. Horregatik, Lumagorri-Heterosexismoaren Aurkako Taldea osatzen dugunok berriz azpimarratu nahi dugu behatoki bat abian jartzeko premia handia dagoela, jendartean ezkutuan dagoen esparru hori lantzeko, hau da, “Sexu- eta genero-dibertsitatearen aurkako Gorroto-delituen Gasteizko Behatokia” sortu beharra dago. Izan ere, oraindik eraso gehienak salatu barik geratzen dira, eta, horren ondorioz, erakunde publikoetan ez dute gai horretaz behar beste informaziorik eskuratzen. Gure kulturaren erruduntasun-presuntzioa bizi-bizirik dagoenez (“merezi dut”, “errua nirea da, neska edo mutil batekin ligatzen saiatzeagatik, homosexuala den ala ez jakin barik”, “hobe dut arreta ez deitzea kalean, ez badut erasorik jaso gura”), zailagoa izaten da erasoen biktimei babesa eta laguntza ematea. Gainera, etengabe ari da gorroto-diskurtsoa areagotzen, eremu pribatuan (ohituta gaude), baita eremu publikoan ere; dibertsitatearen aurkako gorrotoa besterik sustatzen ez dutenei gero eta gehiago ematen baitzaie ahotsa hedabideetan. Gorroto-diskurtsoa hedatzen laguntzen ari dira komunikabideak. Eraso zibernetikoak hor dirau. Eta legedia ez dago batere gaurkotua errealitate berriei begira.

Bestalde, lesbianeiei, gayei, transexualei zein bisexualei zera azaldu nahi diegu (horixe da, hain zuzen, txosten honen helburu nagusia): ezin da inola ere onartu inolako erasorik, eta, erasorik egonez gero, ezinbestekoa da hura erregistratzea eta jendaurrean salatzea. Erasorik ez, erantzunik gabe.

Bigarren helburu dugu, berriz, esparru egokia bermatzea edonor gauza izan dadin egoera bat eraso bat dela antzemateko (sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen aurka egindako erasoez ari gara, noski), eta, aldi berean, jendeak

jakin dezan zein mekanismo dauden horren berri emateko eta salatzeke. Horretarako, funtsezkoa da behin eta berriz azpimarratzea LGTBI+ jendeak ikusgai izan behar dugula, armairua errotik ezabatu behar baitugu, armairuan ezkutatzea ere beste eraso sozial mota bat delako.

Jendarteari begira, gure xede nagusia da udalerrian eta Araba osoan antzemandako egoera LGTBI+fobikoak zenbatzea, ezkutuan estalitako egoera hori argitara emateko. Halaxe, gero eta salaketa gehiago egongo dira. Eta, horretarako, eremu konplexuenetara heldu beharko dugu, gaur egungo jendartean eremu horietara aktibista gisa heltzea erreza ez izanda ere.

Funtsezkoa da maila publikoan eta mediatikoan errealitate horretaz berba egitea, erasoak normalizatuta egoten ez jarraitzeko eta errudun-sentimendua LGTBI+ jendeari kentzeko, urte askoan jasotako heziketa normatiboaren ondorioa dena.

Beste helburu berri bat ere badugu, errealitate berri bat agerian jartzen jarraitzeko: genero bereko pertsonen arteko biolentzia (aspaldiko kontua bada ere, erakundeetan, berriz, 2005eko ekainera arte ez da antzeman, Kode Zibila aldatu zenean, harrez geroztik ahalbidetu baitzen pertsona guztiak ezkondu ahal izatea, alde batera lagata zein sexu duten legearen arabera). Gai horri ere ekin egin behar zaio, bada, sakon ekin ere, haren prebentzioa egiteko eta juridikoki hura tratatzeko behar den esparrua sortzeko.

HELBURUAK

Erregistroa ezinbestekoa da eta jendaurreko salaketa.

Erasorik ez, erantzunik gabe.

Ezkutuan estalitako egoerak argitara ematea Gasteizen eta Araban.

Ez gara jasotzen ditugun erasoen errudunak.

Genero bereko pertsonen arteko biolentzia.

Haren prebentzioa egiteko eta juridikoki hura tratatzeko behar den esparrua sortu.

Erasoak antzematzeko gaitasuna eta informazio eta salaketa mekanismoak ezagutzea.

Ikusgarritasuna.

3. ORAINGO TESTUINGURUA

Gorputzen irakurketa

Den-dena sailkatzeko joera izaten dugu gure jendartean. Testuinguru kultural jakin batetik datorkigu sailkapenak egiteko ohitura hori, eta sailkapen horien eraginez kontzeptuen ikuspegi erlatiboa eta subjektiboa galtzeaz gain, gertakari batzuk berezkotzat eta funtsezkotzat jotzen ditugu, nahiz eta errealitatean gauzak ez horrela izan. Horren adibide bat dugu gorputzei buruz egiten dugun arauaren araberrako irakurketa, horixe ezarri baita gaur egun mendean gaituen hierarkia sortu arte. Hala, bada, gure egunerokoa arautzen duen eredu hori neoliberala da, etnozentrikoa eta zisheteronormatiboa.

Zisheteronormatibitatearen eta binarismoren betaurrekoak jantzita irakurtzen dira zorrozki gure jardunbide sexualak, bai eta gure genero-adierazpena ere. Horrenbestez, arau horretatik kanpo dagoen edozein adierazpen edo sentimendu baztertu ohi da, eta zigortu, hein handiago edo txikiago batean.


Hierarkiek botere-harremanak sorten dituzte jendartean. Hierarkiaren goiko aldean dauden pertsonak sarituak izaten dira: legezkotasuna lortzen dute, eta mugikortasun fisikoa eta soziala, laguntza instituzionala eta onura materialak; gainera, osasun mental “egokia” dutela aitortzen zaie. Beherago gaudenok (homosexualak, lesbianak, transexualak, langile sexualak, trabestiak...) baztertuak izaten gara, anormaltzat, arriskutsutzat, biolentotzat, gaixotat edo bekataritzat jotzen gaituzte eta. Horren ondorioz, sozialki eta ekonomikoki baztertzen gaituzte askotan, eta eskumikatzen, atxilotzen, bortxatzen edo erailtzen.

Identitate eta adierazpen-aukera zabala dugu jendartean. Dibertsitate hori Historia osoan zehar izan da, zenbait saiakera egin diren arren, hura baliogabetzeko eta ereduaren interesen zerbitzuaren pean dagoen ereduak sortzeko. Badaude, bada, beren burua honela definitzen duten pertsonak: gizon femeninoak, transgeneroak, gizon maskulinoak, emakume maskulinoak, transexualak, trabestiak, drag-ak, queer-ak, emakume femeninoak, gizon gay-ak, transexual lesbianak, bollerak, hijra-k, zenbait genero, malgu eta sortzaile dituzten adingabeak, eta abar. Baina jendarteak, ordea, binarismoak joa behatzen du dena, eta bi sexutan eta bi genero dikotomikotan antolatzen, osagarriak, baztertzaileak eta hierarkizatuak direnak: arra/emea, maskulinoa/femeninoa, gizona/emakumea. Horren ondorioz,

areagotu egiten dira zapalketa eta zigorra arau horretatik ihes egiten dugunon aurka.

Sexu/genero sistema hori dela-eta, ezagutzen dugun jendarte-ereduan, sexualitate biologikoak gizonen eta emakumeen arteko desberdinasunak ekarri ditu; emakumeak kaltetuenak suertatzen dira prozesu horretan. Sistema hori dagoela aintzat hartuz ulertu dezakegu nondik datozen gizonen eta emakumeen arteko menpekotasun-eta zapaltze-harremanak, hau da, ez da pentsatu behar sexua bera dela, berez, desberdintasun horien sorburua, aitzitik: jendartean eraikitako genero-posizioetatik datoz desberdintasunok.

Modu horretan onartzen da generoa sexu biologikoan oinarrituta eraikitzen dela, eta generoa kategoria sozial bat izango litzateke, horrenbestez. Naturaren eta kulturaren arteko dikotomia bat errepikatzen da, hau da, aurreikusten da sexua dela naturala dena, biologikoa, zalantzarik gabekoa eta aldagaitza, eta generoa, berriz, sexu horren oinarriaren gainean eraikitakoa, eta, horrenbestez, hori dela aldatu daitekeena.



Nahia taldeak 2015ean egin "Eredu nagusiari aurre egitea sexu eta genero dibertsitatearen bidez" jardunaldietarako (Miquel Misséren lana oinarri hartuta, 2014). Desirak Plazara.

Sexo/genero sistema hori eraikitzeko moduaren ondorioz gertukoena dira egiten ditugun bazterkeriak ez dugulako kontuan hartzen pertsonen sexu- eta genero-dibertsitatea. Logika binarista, heterosexista eta biologizista horri jarraikiz,

jende asko baztertua izaten da: heterosexualak ez direnak; jaiotzean genital “behar bezain argirik” ez izateagatik ez sexu femeninokotzat ezta sexu maskulinokotzat ere jotzen ez direnak, eta, horrenbestez, zalantzarik gabe bi genero horietariko bat esleitua ez dutenak; eta jaiotzez esleitu zieten generoaz besteko generoa bizi dutenak edo zenbait genero izan nahi dutenak, baita batere generorik izan nahi ez dutenak ere.

LGTBI+ jendearekiko gorrotoa

LGTBI+ jendearekiko gorrotoa Historian zehar eratu da aurreiritzietan oinarrituta, aurreiritziak sexu-orientazioa edo genero-identitateak ez normatiboak ditugunok deabruzat jotzeko baliatu baitira. Izan ere, horrela jokatu da jendea kontrolatzeko eta betikotzeko sistema politiko, sozial eta erlijiosoa, ezin zituena (eta ezin dituen) onartu munduan egoteko modu disidenteak. LGTBI+ jendearekiko gorroto-diskurtsoak kolektiboa baztertzea ekarri du, eta kolektiboak ikusezintasunera jo behar izan du bizirauteko jendartean, zisheterosexualitate binarista arau nagusia eta baztertzailea baitu. Nahiz eta LGTBI+ jendearen eskubideak bermatzeko aurrerapen legalak eta sozialak lortu diren, oraindik ere sexu-orientazioa eta genero-identitateak dira gorroto-delituen arrazoi nagusietariko bat.

Homofobia

George Weinberg psikologoa hasi zen homofobia terminoa erabiltzen hirurogeita hamarreko hamarkadan. “La Sociedad y el Homosexual Saludable” liburuan aipatu zuen termino hori (1972an argitaratu zen). Weigmerrek hau zioen: *“Inoiz ez nuke osasungarritzat joko paziente bat, baldin eta ez badu gainditu homosexualitatearen aurkako aurreiritzia. Heterosexuala izanda ere, homosexualitatearekiko higuina, egitan, kaltegarria da berarentzat”*. Bere lanean, Weinberg-ek aurreneko aldiz sartu zuen homofobia terminoa homosexualitatearekiko gorroto sakona erakutsiz jokatzeko duten pertsonak aipatzeko. Arbuio hori, Weinberg-en arabera, gizon eta emakume homoseksualekin egoteko ikara handitik dator, baita heterosexualitateaz besteko sexu-orientazioa dugten pertsonetako beldur irrazional, gorroto eta intolerantziatik ere.

Lesbofobia

Lesbianekiko eta bollerekiko gorrotoa aipatzeko homofobia berba erabiltzen da, askotan. Lesbianen kolektiboen eskaerei erreparatuz, ordea, lesbofobia terminoa erabili behar dugu, eraso-mota hori ikusarazteko, zeinaren gakoa baita lesbianak

ez ikustea, hau da: “lesbianak ezabatzea”. Izan ere, ezagutzen ez dena ez da. Lesbofobia terminoa erabiltzeak lesbianak eta bollerak aintzat hartzeaz gain, diskriminazio bikoitza adierazteko balio du: orientazio sexuala eta genero direla eta izan ohi den diskriminazioa, hain zuzen.

Bifobia

Bisexualitatea gorrotatzea edo diskriminatzea esan gura du bifobia terminoak. Pertsona bisexualen kolektiboak nozitzen dituen eraso gehienak homofobikotzat edo lesbofobikotzat jo daitezke. Dena den, zenbait gay, lesbiana edo transexualek ere zuzenean diskriminatzen dute bisexualen kolektiboa. Gainera, kolektibo horri ere esleitzen zaizkio berezko estereotipoak eta estigmak.

Transfobia

Transfobia da transexualek nozitzen duten arbuioa, sozialki ezarritako sexu/genero sistema urratzen dutelako. Pertsona horiek bereziki zaugarriak dira, eta bazterketa eta biolentzia-maila handia nozitzen dute. Teoriko eta egile transfeminista Julia Serranok bere “Wipping Girl” liburuan argudiatzen duenez, sexismoan ditu erroak transfobiak. Aipatutako egileak aurkakotasun-sexismoa deitzen dio. Uste honetan datza: maskulinoa eta femeninoa dena elkar baztertzen duten kategoria zorrotzak dira, eta bakoitzak atributuak, jarrerak, gaitasunak eta desira bakarrak ditu, inoiz gainjartzen ez direnak. Serranok erkatzen ditu aurkakotasun-sexismoa eta sexismo tradizionala, hau da, gizonak eta maskulinitasuna emakumeak eta feminitatea baino gehiago direla ustea. Haren argudioen arabera, jendeak generoari eta genero-arauei buruz dituen ziurtasun-gabezietatik elikatzen da transfobia.

Homofobiaren eta misoginiaren hedapena da transfobia, kritikari transgenero Jody Norton-en arabera. Norton-ek argudiatzen duenez, pertsona transgeneroak, gayak eta lesbianak gorrotatuak dira, eta haien beldur da jendea, genero-rolei eta genero-binarismoari aurre egiten dietelako, eta kategoria haiek guztiak “zultzen” dituztelako. Egileak dionez, *“gizonetik emakumerako pertsona transgeneroak bultzatzen du transfobia, inplizituki desafiatzen ari delako hegemonia politiko eta kultural maskulinoa darion genero-banaketa binarioa”*.

Ikuspegi feminista


Ikuspegi interesezional eta feminista batetik baino ezin da ulertu sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta dagoen gorrotoaren azterketa. Ezin dugu ulertu matxismoa eta LTGBIfobia kontu bereiztuak balira bezala; haien azterketak, aitzitik, ontzi komunikantearena bezalakoxea izan behar du, jendartean ezarritako sistema patriarkalak gauzatutako zapalkuntza baten gisa.

Gaur egun, kultura matxistak genero-sistema binarioa ezartzen du: “gizona” eta “emakumea”. Hala, alde batetik, zigortzen eta baztertzen du binarismo horretan aitortzen ez den edozein identitate, eta, beste alde batetik, “emakumea” “gizonaren” pean jartzen du, gizonaren kategoria hierarkia sozialaren gailurrean kokatzen delako. Gainera, bien arteko harremana, ikuspegi matxistatik, heterosexualitatearen arauaren pean baino ez da ulertzen, eta, arau horri jarraikiz, edozein disidentzia zigortzen da.

Ezarritako sexo-genero sistemaz gain, ekuazio horri gehitzen zaizkion zenbait zapalkuntza izaten dira, klase sozial, jatorria, talde baten partaide izatearen edo gaitasun ekonomioaren arabera. Hala, bada, honela marrazten zaigu jendartea: “gizon” dirudun, zuri eta heterosexualek botere-posizioak betetzen dituzte, eta beheragoko mailetan dauden kategoriaak zapaltzen eta menperatzen dituzte.

Ikuspuntu horretatik, aldarrikapen feministatik eta heterosexismoaren aurkako borrokatik, etsai erkidea, gure zapalkuntzen sortzailea dena, aurkitu beharrean gaude.

Egoera horri erantzuteko antolakuntza politiko gisa zenbait kategoria ezartzen dira, etengabe ezbaian daudenak. Izan ere, ez dira errealitate sozialera egokitzen, baina baliagarriak dira, ordea, patriarkatua errotik kentzeko tresna politiko gisa. Hala, aktibismoak LGTBI+ siglak berak jartzen ditu kolokan; pertsona-multzo oso handiaren identitatea ontzi estankoetan sailkatzeko baino ez baitute balio. Helburuak lortzeko bidean baliatzen dugun tresna politiko bat bezala partekatzen ditugu, beraz, siglok, baina ez, ordea, oso dibertsoa eta konplexua den pertsonen talde bat islatzeko.



"Privilege, Oppression/Resistance" taula originala ingelesez. Hiruki Larroxa Kolektiboak itzulita. @kolektiboa


LGTBI+ pertsonen aurkako aurreritziak

Historian zehar zenbait aurreritzi sortu dira LGTBI+ jendearekiko, eta aurreritzi horiek indarrean daude oraindik gure jendartearen, hein handiago edo txikiago batean, eta ageriko zein ezkutuko biolentziaren eragileak dira. Aurreritzi horiek sistema normatiboa zalantzan ez jartzetik abiatzen dira. Esate baterako, honelakoak onartzetik: homosexualitatea ez da naturala; homosexualitatea gaixotasun bat da, eta osatu daiteke; homosexualek ezin dute harreman egonkorrik izan; sexu bereko bikoteetan batek gizonarena egiten du eta besteak emakumearena; homosexual guztiak afeminatuak dira, eta lesbianoak, maskulinoak; lesbianek ez dute sexualitate baterik; emakume guztiak dituzte gustuko lesbianoek eta gizon guztiak gay-ek; bisexualak biziotsuak dira; transexualitatea eta trabestitzea gauza bera da; transexualitatea aukera edo kapritxo bat da; transexualek ikuskizun-munduan egiten dute lan; transexualitatea prostituzioarekin lotuta dago; transexualitate gaixotasun mental bat da; transexualitatea eta intersexualitatea gauza bera dira; pertsona transexual guztiak heterosexualek dira.

Gorroto-delituez eta haien zenbaketa

OSCEren arabera, hau da gorroto-delituak: edozein zigor-arloko arau-haustea, pertsonen edo ondasunen aurkako arau-haustek barne, non biktima, lokala edo arau-haustearen helburua aukeratzen baita talde batekiko lotura, sinpatia, filiazioa, babesa izateagatik edo haren kide izateagatik, hori guztia benetakoa izanik edo hala dela susmatzen delako. Talde bat haren kideek duten ezaugarri erkide batean oinarritu behar da, hala nola haien benetako arraza edo “esleitzen” zaiena, jatorri nazionala edo etnikoa, lenguaia, kolorea, erlijioa, sexua, adina, ezintasun intelektuala edo fisikoa, orientazio sexuala edo antzeko faktore bat.

Bereiztu behar ditugu, batetik, gorroto-delituak, zigor-arloko legeetan aitortzen diren moduan, eta, bestetik, homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia direla-eta izaten diren erasoak: irainak, mehatxuak, erridikulizazioa, lapurreta/ebasketa, eraso fisikoa edo zerbitzu bat ukatzea, baldin eta sexu-orientazioarekin zein genero-identitatearekin zerikusia duten aurreritziengatik edo gorrotoagatik izaten badira, biktimaren, hirugarren baten, lekuko baten edo gorabeheraren berri jaso duen pertsona baten irizpidearen arabera.



Oso garrantzitsua da nabarmentzea gorabehera horiek guztiak ez direla gorroto-delitutzat jota jasotzen legedietan, eta, horrenbestez administrazioekez dituztela zenbatzen eraso-mota guztiak. Funtsezkoa da hori kontuan hartzea, elkarteek eta mugimenduek erasoei buruz jasotako datuak eta administrazio publikoetako erakundeek jasotakoak zergatik ez datozen bat ulertzeko. Gorroto-delituak eta diskriminazioa zigortzeko zailtasunen artean daude, hain zuzen, segurtasuna bermatu behar duten eta justizia egin behar duten profesionalen prestakuntza-falta, salatutako gertakarien kopurua ez ezagutzea eta zenbait gertakari salatu gabe geratzea.

2006an, beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea (errealak edo “susmatutakoa”) direla-eta pertsonen kontra zuzendutako abusuen eredu ondo dokumentatuei erantzute aldera, zenbait erregiotako giza eskubideen gaineko aditu-talde bikain bat elkartu zen, Yogyakarta (Indonesia), orientazio sexualarekin eta genero-identitatearekin lotutako nazioarteko printzipioak ezartzeko. Bilerak

hartatik atera ziren Yogyakartaeko printzipioak, zenbait legezko nazioarteko printzipio sexu-orientazioaz eta genero-identitateaz eta nazioarteko zuzenbidez, estatu guztiek bete beharreko estandarrak jasotzen dituztenak. Estatuak ez dute, ordea, printzipio horiek tratatu batean hartu, eta, horrenbestez, oraindik ez dira, berez, giza eskubideen nazioarteko Zuzenbidearen tresna lotesle bat.

Gorroto-diskurtsoa

European Commission against Racism and Intolerance-ECRIren arabera, arraza batzuekiko gorrotoa, xenofobia, antisemitismoa eta gorrotoaren beste era batzuk hedatzen, bultzatzen edo justifikatzen dituzten adierazpen-forma guztiak sartzen dira gorroto-diskurtsoaren barruan; intolerantzia oinarrituak, eta, besteak beste, nazionalismo erasokorrak eta etnozentrismoak, gutxiengoak eta immigraziotik datozen pertsonen aurkako diskriminazioak eta etsaitasunak adierazten duen intolerantzia, tartean.

Zigortzen dena ez da berez ideia batzuen adierazpena, ideiak hinguigarriak izanik ere, baizik eta adierazteko moduagatik eta egoera kontuan hartuta, baldin eta gorrotoa, diskriminazioa eta biolentzia bultzatzen bada, zenbait konstituzio-balio urratuz: pertsonen duintasunarekiko errespetua, eta, jaiotza, jatorria, sexua, erlijio edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial direla-medio, ez diskriminatzea (Konstituzioaren 10. eta 14. artikulua).

Eztabaida handia dago pertsonen duintasunak eta adierazteko eskubideak, biak funtsezko eskubideak izanik, egiten duten talkaren inguruan, eta epaitegien zenbait epai egon dira gai horren inguruan. Auzitegi Gorenak aipatzen du, 19/02/15 epaian, ideologia adierazteko askatasunak ez duela babesten gorroto-diskurtsoa. Ikusten dugunez, dena den, epaitegiek haren erabilpen partziala egiten dute, eta LGBTI+ kolektiboa babesik gabe uzten den bitartean, oso babestuta geratzen dira, ordea, beste kolektibo batzuk, inoiz zaurgarritzat jo ez direnak, hala nola eliza edo segurtasun-indarrak eta kidegoak.

Giza Eskubiden Europako Auzitegiarentzat, adierazpen-askatasunak ez ditu babesten gorroto-diskurtsoak.

Gorroto-diskurtsoaren normalizazioa

Disimulorik gabe homofoboak eta transfoboak diren alderdiak eta presio-taldeak informazioaren lehenengo lerrora heldu dira. Egoera horrek normalizatu egin du sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta egiten den pertsonen aurkako gorroto publikoaren diskurtsoa. Berriz jarri dira ezbaian jada gaindituta zeuden eztabaidak, hedabideek talde-mota horietan jarri dutelako fokua (ezkontza berdintzaileari buruz edo transexualen eskubideei buruz, esaterako).

Hori dela-eta, espero izatekoa da LGTBI+ jendearekiko gorrotoa areagotu izana. Halaxe egiaztatzen du Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Madrilgo Behatokiaren txostenak: 2018an, Madrilgo Erkidegoko LGTBI+ kolektiboaren aurkako 345 gorroto-erasoak jaso zituen. 2017an, berriz, 321 izan ziren, alegia, % 7,5 gehiago. Gorabehera horietatik bakarrik % 30 salatu zuen Administrazioak.

Zenbait adibide:

Joan den apirilean, ElDiario.Es egunkari digitalak jakinarazi zuenez, “Alcaláko apezpikutzak ikastaro ilegal eta klandestinoak egiten ditu homosexualitatea sendatzeko, barruko ikerketa baten ostean. Egunkariak berak dionez, **Reig Plako** elizbarrutiko iturriek onartu dute ikastaro horiek egiten direla. Ikastarook ilegalak dira Madrilgo LGTBfobiaren aurkako Legearen 70. artikuluaaren arabera, nahiz eta “*terapiok*” ez dituzten “*lehengoratzekotzat*” jotzen, baizik eta “harrera eta laguntza eta babesa ematekotzat”. Francisco aita santuak berak adierazi zuen, Salvados telebistako saioari emandako elkarrizketa batean, ezin dela “pertsona bat bota etxetik joera homosexualak izateagatik. Une hartan esan gura nuena, nireaz besteko hizkuntza batean [bidaia baten bueltan emandako prentsurre entzutetsu bati buruz ari da, non italieraz aritzen baita], hau da: gurasoek gauza arraroak ikusten dituztenean, aditu batengana jo behar dute, zalantza kentzeko. Baina behin jarrera homosexual hori fraguatuta badago, pertsona horrek familia bat izateko eskubidea dauka”.

VOX alderdi ultraeskuindarreko lider batzuek ere gorrotoz beteriko diskurtsoa zabaldu dute. Esate baterako, Fernando Paz alderdi ultra horren Albaceteko hautagai-zerrenda buruak esan zuen semea gaya izanez gero, lagunduko liokeela “*haren psikologia berbideratzen, terapia bidez*”.


Joan den apirilean, **Esquerra Republicana de Catalunya** alderdiak homofobo izateagatik bota zuen kide bat bere egituratik kanpo: Sicus Carbonell “Sabor de Gràcia”, runba kataluniarreko taldeko abeslaria eta “Associació Professional d’Autors i Creadors de la Rumba Catalana” elkarteko presidentea. Kantariak

esan omen zuen pena ematen diola pertsona bat gay izateak, “*emakume bat delako gizon baten gorputzean harrapatuta*”.

LGTBI+ jendea ikusezina izatea

Azterketa egin aurretik azpimarratu behar dugu ikusezintasuna dela LGTBI+ garenok Gasteizen ere gainditu beharreko erronkarik handiena.

Europako Batasuneko Funtsezko Eskubideen Agentziak LGBTI jendeari egindako inkestaren arabera (2013), %48k argiro erakusten diete senideei LGBTI direla, eta %28k ez die horren berri eman inori edo adiskide gutxi batzuei soilik. Bakarrik %21 agertzen da den bezalaxe lankideen edo ikaskideen aurrean. Inkestatutakoen erdiek ia uste dute orokorra dela beren herrialdetako politikariak LGBTI jendeari buruzko adierazpen irangarriak egitea. Bi heren saiatzen dira beren sexu bereko bikotekideekin eskutik helduta ez joaten jendaurrean, beldur direlako ez ote dituzten mehatxatuko, erasotuko edo jazarriko. Proportzio hori hiru laurdenena da inkestutako gizonetako gay edo bisexualen artean. Inkestatutako %50ek saihesten dituzte leku jakin batzuk LGBT izateagatik erasotuak, mehatxatuak edo jazarriak izatearen beldur direlako. Hori guztia bereziki garraio publikoari, kaleari, leku publikoei edo eraikin publikoei aplikatu dakieke.



Gasteizen ere ikusezintasuna baliatzen da autodenfentsa-tresna gisa. Bizitoki dugun hiria askoz atseginagoa da beste leku batzuk baino, non homosexualitatea jazarrita dago eta kartzela-zigorraz ezartzen baitzaio, baita heriotza-zigorra ere. Hori horrela bada ere, gurean ere kultura matxista errotuta dago, eta, horren ondorioz, oso ohikoa da beldur izatea eta ez ausartzea armairutik irteten. Agian testuinguruaren arabera disoziazioa dagoela nabarmendu beharko genuke. Gaur egun, LGTBI+ jendea arlo jakin batzuetan agertzen da den bezalaxe (familiar, adiskideekin, espazio pribatuetan), baina argi dago, erasoak nozitzearen beldur izateaz gain, oraindik ere salbuespena dela kolektiboaren barruan arlo guztietan LGTBI+ izatea ez ezkutatzea.

Salatu nahi ez izatea


LGTBI+ elkarteak eta mugimenduak beti zenbatzen ditugu txosten ofizialetan jasotako baino eraso gehiago. Izan ere, kasu gehienetan, erasoak nozitu dutenek salaketarik ez jartzea erabakitzen dute.

Funtsezko Eskubideen Europako Agentziaren arabera, gertatzen diren delituen %90 ez da salatzen, eta, horrenbestez, gure duintasunari eraso egin dioten baztertutako kasu horiek guztiak berreskuratzea oso garrantzitsua da. Horrela dela berretsi genuen guk ezagututako kasu bat ere ez zela Arabako Fiskaltzara heldu egiaztatu genuenean.

Ez salatzeko erabakia konplexua da, eta zenbait arrazoi egon daitezke tartean. Hona ohikoenak:

- **Errepresaliatua izatearen beldur izatea.** Beldur hori oso ohikoa da gorroto-delituen biktimen artean. Biktimari nozitutako delituak uzten dizkion arrasto larrietan oinarritzen da salaketa jarritz gero berriz eraso jasateko beldurra.
- **Biolentziaren eta diskriminazioaren normalizazioa.** Pertsona batzuek bizitza osoa daramate gorrotoaren eta diskriminazioaren biktimak izaten, eta, horren ondorioz, beren eguneroko bizitzan integratzen dituzte jokabide biolento horiek.
- **Erakundeekiko mesfidantza:** biktimek pentsatzen dute ez dietela batere kasurik egingo, edo salaketa jartzeak ez duela ezartarako balioko. Erakundeek biktimak ondo tratatzea funtsezkoa da, konfiantza sortzeko eta salaketa jartzeko aurrerapausoa eman dezaten.

- **Agintariak biktimen egoeraren berri ez izatea.** Ezagutza-falta horrek ekar dezake ez baloratzea behar bezala biktimaren ingurunea salatutako gertakeriak aintzat hartzerakoan.
- **Herrialdetik kanporatuak izateari beldurra.** Egoera irregularrean dauden atzerritarrak beldur ohi dira ez ote dituzten herrialdetik kanpo botako salaketa jarriz gero.
- **Sinesgarritasuna.** Biktimak uste du salatuz gero ez diotela sinestu egingo.
- **Intimitatea jakinaraztearen beldur.** LGTBI+ batzuek ez dute beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea ikusarazi gura salaketa jartzerakoan.
- **Eskubideen berri ez izatea.** Biktimek ez dakite non eta zelan salatu.
- **Ekintzen eskaintza eskasa.** Ekintzak eskaintzeak ahalbidetzen dio biktimari zigor-arloko prozesu batean bere eskubideak gauzatzea.
- **Lengoaia argia eta ulerterraza** erabili behar da, termino juridikoen berri ez dutenak aintza hartuz. Baldin eta biktimak ez badu ulertzen helarazi zaion informazioa, baliteke dagozkion legezko egintzak ez gauzatzea.



Funtsezko Eskubideen Europako
Agentziaren arabera, gertatzen diren
delituen %90 ez da salatzen.

Erasoak antzemateko arazoak

Askotan zera gertatzen da: eraso fisiko bat nozitu duenak osasun-zerbitzuetara jotzen du, eta lesio-partea egiten diote, bai, baina biktimak ez duenez jakinarazten erasoan gorroto-elementu bat egon dela, gorroto-larrigarririk gabeko eraso bat balitz bezala tramitatzen da gertatutakoa. Horrela jokatzek are konplikatuago

bihurtzen du behatokiak gorroto-delituak antzematea, ez baita protokolorik abian jartzen eraso matxista egon delako susmoa dagoenean egiten den bezalaxe.

Azpimarratu behar dugu LGTBI+jendea izaten dela gehienetan sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen aurkako gorroto-delituak nozitzen dituen. Dena den, batzuetan diskriminazioa errakuntza bat dela medio izaten da, hau da, berez LGTBI+ ez diren sexu bereko personaren arteko maitasun-adierazpenenei emandako erantzuna izaten da eraso homofobia, lesbofoa edo transfobia.

Sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen aurkako gorroto-delituei buruzko legedia

Arau-esparruari dagokionez nabarmendu behar dugu Euskadin oraindik ez dugula lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubideak bermatzeko lege espezifikorik. Nafarroako Komunitateak, Madrilgoak, Kataluniakoak edo Balear Irletakoak, berriz, badute. Geure arau-esparrurik ez izatea legeko hutsune bat da, eta Zigor Kodean jasota ez dauden gorroto-adierazpenak gertatzea ahalbidetzen du.

Aitzitik, Transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Legea dago Euskadin (ekainaren 28ko 14/2012 Legea). Lege horren helburua da, hain zuzen, transexualei administrazio publikoek laguntza integrala jasotzeko eskubidea emango dietela bermatzea, haien premia mediko, psikologiko, juridiko eta beste mota batzuetara egokituta, gainerako herritarren baldintza berberetan.

Sexu-orientazioa, genero-identitatea edo adierazpena edo ezaugarri sexualak direla eta egiten den diskriminazioaren eta lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen eta intersexualen berdintasun Legea, kalean LGTBI jendearen berdintasun legea esaten zaio. Unidos Podemos talde konfederalak erregistratu zuen Kongresuan, eta hauteskundeak aurreratu direnez, haren tramitazioa etenda geratu da (talde guztiek babestu zuten lege proposamena, Alderdi Popularrak izan ezik, zuzenketa aurkeztu baitzuen).

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko delituei buruzko memoria

Euskal Autonomia Erkidegoko Delituen Memoriaren arabera, 2018an, guztira 130 gorroto-delitu eta diskurtso erregistratu dira (87 Bizkaian, 33 Gipuzkoan eta 10 Araban). Iaz, berriz, 129 izan ziren. Eremuaren eta testuinguruaren arabera, nabarmendu dezakegu 62 arrazakeria edo xenofobiagatik izan zirela, 39 sexu-

orientazio edo identitateagatik (34 delitu eta 5 diskurtso, gorrotorenak), 17 ideologiagatik, 7 erlijio-orientazioagatik, 3 ezintasunagatik eta 2 aporofobiagatik. 2017koekin alderatuta, 7 gorroto-delitu eta diskurtso gehiago egon dira sexu-orientazio edo identitateagatik. Antzemandako 39tik, 25 gorabehera argitu dira (24 delitu eta diskurtso bat, gorrotoarenak).



2017. urtearekin konparatuta, 7 gorroto-delitu eta diskurtso gehiago egon dira sexu-orientazio edo identitateagatik EAE-n.

Gasteizko LGTBI+ jendearen errealitateari buruzko diagnostikoak antzemandako urraketak

Diagnostikoan bildutako informazioak argiro erakusten duenez, oro har Gasteizen LGTBI+ jendeak mota guztietako urraketa arruntak nozitzen ditugu, jendarte heteronormatibo eta binarioaren funtzionamenduarekin lotuak, baztertatzailerak baita sexualitatea edo genero direla-eta arautik kanpokotzat jotako pertsonekin. Honela jartzen dira agerian bazterkeria horiek:

- **LGTBI+ jendearen aurkako erasoak mota askotakoak dira:** fisikoak (kolpeak, jipoiak), ahozkoak (barregarri uztea, komentario umiliagarriak,...) eta batez ere egunero pertsona askok jasan beharreko zeharkako begirada horiek: inkisitiboak, mespretxuzkoak eta zalantzan jartzekoak. Azpimarratu behar da eremu publikoan izaten direla batez ere erasoak (jaietan eta aisialdi-espazioetan), hezkuntzan eta kirol-arloan.
- **Nozitzen diren diskriminazioak, eskubideak berdintasun- eta justizia-baldintzetan gauzatzea eragozten dutenak.** Diskriminazio horiek ez dira bakarrik LGTBI+fobikoak, baizik eta xenofoboak eta arrazistak ere bai, eta oso lotuta daude pertsona guztiak ustez heterosexualtzat jotzearekin. Pertsonetikiko tratamenduan gertatzen dira, eta bete beharreko formularioetan, aisialdi eta kulturako jardueren planifikazioan, kanpaina instituzionaletan, zerbitzuei buruzko informazioan, eta abar.
- **Administrazioei LGTBI+ jendearen arazoak eta premiak bost axola zaielako sentsazioa, eta bigarren mailakotzat jotzen duteneko.** Ez dago LGTBI+fobiaz konzientziatzeko kanpainarik, ezta LGTBI+ena ez, baizik eta jendarte osoaren arazo bat dela sentikortzeko. LGTBI+ nozitzen dituzten erasoaren aurreko

protokolorik ere ez, ezta LGTBI+fobia-maila esanguratsua duen hiri baten egunerokoa nozitzen duten pertsonei arreta eta laguntza emateko zerbitzurik ere ez. Ez dago etengabeko erasoen aurreko erantzunik, ezta zaugarritasun-egoera espezifikagoei ere ez, ez zaio prestakuntzarik ematen Udaltzaingoari, orain ez bezala joka dezan batez ere hiriko esparrurik arriskutsuenetan, eta abar.

LGTBIfobiaren aurkako Behatokiaren I. Nazioarteko Topaketa

2018ko ekainean egin zen Bartzelonan LGTBI-fobiaren aurkako Behatokiaren I. Nazioarteko Topaketa. LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak afektu edo sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren aurkako gorroto-delituei erantzuna emateko premiaz sortzen dira, LGTBI+ kolektiboko kideei duintasuna itzultzeko eta biolentzia horien zigorgabetasuna ikustarazteko, biktimei zein kolektibo osoari egindako kaltea konpontze aldera.

Zentzu horretan, “Observatori contra l’Homofòbia” izenekoak 10 urte daramatza lan hori egiten aintzindari gisa, Katalunian eta Estatu osoan. Azken urteotan, behatoki berriak agertu dira, arian-arian, baita LGTBI+fobiaren biktimei laguntzeko eta arreta emateko entitateak ere. Hasiera baetan, LGTBI+fobiaren aurkako Madrilgo Behatokia, dagoeneko 2 urteko eskarmentua duena. Baina berriki hasiak dira beste batzuk ere sortzen eta afektu- eta sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurkako biolentziak eta gorrotoa ikustarazten. Esparru horetan antzeman genuen elkarri prestakuntza emateko premia eta gure esperientziak, kezkak eta ezagutzak partekatzeko esparruak sortzekoa.

Lehenengo topaketa horretan nabarmendu nahi zen LGTBI+fobia dela-eta izaten diren gorabeheren erregistroari buruz, bai eta biktimei arreta emateari buruz ere. Erregistroaren bidez, LGTBI+fobia dela behatokietan jasotzen diren gorabehera guztiak jasotzen dira. Fidagarria, balioduna eta legitimoa izan behar duenez, erregistroak erabiltzen den metodologia funtsezkoa eta oinarritzkoa da. Izan ere, LGTBI+fobiaren aurkako lan-oinarria baita, eta, errealitatean, gorrotoaren aurkako edozein behatokirako.



4. METODOLOGIA

“Sexu-eta genero-dibertsitatearen aurka Gasteizen izandako gorroto-delituei buruzko II. Txostena” egiteko kasuak antzemateko, 2017ko erabilitako metodologia bera baliatu dugu, zenbait aldaketarekin.

Egoerak bereiztea

Lumagorri Heterosexismoaren Aurkako Taldea izan zen Bartzelonan 2018ko ekainean egindako LGTBfobiaren aurkako Behatokiaren I. Topaketan. Eta hantxe izandako eztabaida sakonaren ostean, erabaki genuen antzemandako egoerak bereizteko guk ere aplikatzea Madrilgo eta Kataluniako behatokietan jada aplikatzen ari den metodologia bera. Metodologia horri jarraikiz, ezinbestekoa da bereiztea leku definitu batean identifikatu daitezkeen kasuak, une jakin eta pertsona jakin batekin, eta horrela jokatzetik ez dutenak. Bigarren kasuan, aldagairen bat edo denak falta direlako edo ezagutzen ez direlako, beste era batez tratatu behar da kasua, ez dituelako premisa guztiak tramitatu ahal izateko, eta, orduan, banakako arreta, eta laguntza eta babesa eta erantzuna emateko ibilbide batean sartzen da.

Horretaz gain, Gasteizen ez dagoenez sexu-eta genero-dibertsitatearen aurkako gorroto-delituen behatokirik, jarraitu dugu gure egoerara egokitzen, ahalik eta informazio gehien lortzeko eta hura jendaurrean jartzeko helburuz. Hala, bada, erabaki dugu Gasteizko udalerritik kanpo gertatu diren gertakariak ere txostenean sartzeari (Arabako lurralde historikoan gertatutakoak), haien garrantziarengatik hiriburuan bizi dugun egoera sozialari eta kulturalari ere aplikatu dakizkiolako.

LGTBifobia dela-eta izandako erasoak antzematea

Gasteizko Sare Transbollarikak jarraitu du bere jarduera betetzen, 2018an. Lumagorri Heterosexismoaren Aurkako Taldekook egiaztatu dugu, bestalde, 2018an gora egin duela eraso-kopuruak Gasteizen, batez ere gizonezko homosexualen aurka egindakoak, hiriko leku oso jakin batean. Behin eta berriz errepikatu direnez erasoak, patroia berari jarraikiz, alarma guztiak piztu zitzaizkigun. Gertakari horien aurrean, eraso-kopurua areagotu izanari erantzuna emateko protokolo bat abian jarri genuen, erasoak noizten dituzten pertsonen laguntza eta babesa emate aldera. Halaxe sortu zen, hain zuzen, Gasteizko Sare Transbollarika: eraso haien

aurako erantzun antolatu gisa. Erasoen aurreneko salaketa publikoa egin ostean, 2017ko ekainean, sareak Gasteizko herritarren eskura jotzeko telefono bat jarri zuen, haren bidez erasoak salatu ahal izateko, bai eta informazioa jasotzeko ere. Agiri bat ere jarri zuen herritarren eskura, non jasotzen baitziren bete beharreko zenbait jarraibide, sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen aurkako erasomotaren bat nozituz gero. Telefono-zenbaki eta protokolo horiek biak indarrean daude gaur egun ere, eta Lumagorri- Heterosexismo Aurkako Taldeak kudeatzen ditu.

- Intenta conservar la calma. Si hubiera testigos, consigue su número de teléfono para poder contar con su apoyo a la hora de que se investiguen y juzguen los hechos.

- Si estás sola, solo o solx, llama a una persona amiga de confianza para que te apoye.

- Si has sufrido daños físicos y/o psicológicos acude a un hospital o Centro de Salud para recibir atención.

Puedes llamar directamente a la policía, que tiene que levantar un parte sobre la agresión, que servirá de prueba. Además, la policía puede localizar a los autores en las inmediaciones.

Ponte en contacto con nosotros en:

transbollomariika.sarea@gmail.com

633 309 653

También Whatsapp y Telegram

EN EL HOSPITAL.

Es muy importante **insistir al personal médico que nos atiende que las heridas o los daños que presentamos son fruto de una agresión LGTBIfóbica**, para que así quede reflejado en el correspondiente parte de lesiones.

DENUNCIA.

Ante una agresión, ¡denuncia! No te calles. Sólo tienes seis meses, cuanto antes lo hagas, mejor.

Puedes hacerlo en una comisaría o en el Juzgado.

Es muy importante que vayas con compañía a presentar la denuncia formal; puedes contar con una persona cercana y, por supuesto, con nosotros.

Para que la agresión sea calificada como un delito de odio es necesario, además de firmar la denuncia, que en ésta aparezcan todos tus datos y que aportemos todos los detalles posibles de la agresión.

Es muy importante señalar todo aquello que pueda probar que la agresión se ha producido porque somos trans, lesbianas o gays.

Si te encuentras en situación administrativa irregular (sin papeles), ponte en contacto con CEAR (tlf.: 945 26 68 05). Allí te podrán ayudar, apoyar y acompañar en todo el proceso.

JUICIO.

Si en el juicio no dispones de abogadx, o no hay fiscal, insiste en que se aplique el art. 22.4, del C.P. como agravante por agresión LGTBIfóbica.

Ante cualquier duda o problema que te encuentres, contacta con nosotrxs.

El siguiente paso sería la denuncia social. Es necesario que la sociedad sepa que sigue existiendo este odio y que por ello lo combatimos.

Y, sobre todo, no pienses que la agresión ha sido culpa tuya, jamás.

SI ERES TESTIGO DE UNA AGRESIÓN.

Observa, pregunta, actúa, no lo ignores. Ofrece tu ayuda.

ERASO
HOMOFOBO
LESBOFOBO
TRANSFOBO
BAT JASAN BADUZU



SALATU!
633 309 653



Telefonoa eta protokoloa gero eta ezagunagoak.

2018ko maiatzean aurreneko txostenaren aurkezpenak hedabideetan izandako oihartzunari esker, zabalkunde-kanpaina bat abiatu genuen, biktimak artatzeko telefonoarena, baita sexu-orientazioaren eta identitate-generoaren aurkako erasoen aurkako protokoloarena ere.

Informazio hori zabaltzea izanda, hain zuzen, 2018an egin dugun lan handienetarikoa bat. Horretarako, bisita-txartelak jarri ditugu LGTB+ jendea ibili ohi den lekuetan eta zuzenean eman dizkiegu, eta pegatinak eta kartelak jarri ditugu tabernetan eta saltokietan. Zabalkunde masiboko kanpainak ere egin ditugu, sare sozialen bidez

(facebook, twitter eta instagram), baita ligatzeko aplikazioetan ere (esaterako, Grindr-en).

Horrez gain, Gasteizko Brusadunen eta Nesken Batzordearekin lankidetzan, Andre Mari Zuriaren jaien bitartean, kartela eta protokoloa egon ziren kuadrillen furgoneta guztietan, baita telefonoa ere; batzordea osatzen duten kudarillek jaietan banatzen duten jai-egutegian ere bai.



Lekukoak jasotzea

2017ko prozedurarekin antzera, 2018an eta 2019ko gaur egun arte, jarraitu dugu lekukoak hartzen gure ohiko bideren bidez: sexu-orientazioaren eta identitate-generoaren aurkako erasoen aurreko informazio-telefonoa, Lumagorri-Heterosexismo Aurkako Taldearen sare sozialak, sare sozialen bidezko bilaketa aktiboa, prentsa idatziaren eta digitalaren bidezko bilaketa eta "ahoz ahokoa".

Lumagorri- Heterosexismo Aurkako Taldera zuzenean jo zuten pertsonak ibilbide hau egin zuten, urratsez urrats: lehenik eta behin, guregana jo zuten, eta guk hitzez hitzeko lekukotzak jaso genizkien; hori egin ostean bertatik bertarako hitzordu bat adostu genuen, non kasua babesteko elkarrizketa bat egin genuen, beren egoera lasaiago eta luzeago azaltzea izan zezaten. Laguntza eta babesa emateko elkarrizketa egin ostean baloratzen ziren eman beharreko hurrengo urratsak: laguntza medikoa eta/edo juridikoa, salaketa publikoa, eta abar. Kasu guztiak eredu-fitxa batean jaso dira (fitxa hori 2017an jarri zen martxan, eta, egun, indarrean dago).

[illegible]

LGTBI+fobia eta gorroto delituen erregistroa

2017ko txostena jendartean hedatzea

2018ko maiatzean, ekainean eta uztailean, zenbait eragileri helarazi genien txostena, eta, horretarako, bilerak egin genituen Gasteizko Sare



Transbollo marikarekin, Miaukatuz-ekin, Gasteizko sindikoarekin, Gasteizko Mugimendu Feministarekin, Berdintasun Zerbitzuarekin eta Gorroto-Delituen fiskalarekin. Bestalde, Arabako Abokatuen Elkargoari, Aldarteri, Berdinduri, Gehituri, Arartekori, Sidalava elkarteari eta udaltaldeei bidali genien txostena.

Bileretan proposamenak jaso genituen, eta esku-hartzeko ildoak eta estrategia bateratuak ezarri ziren, eraso LGTBI+fobikoen aurka informazioa jasotzeko eta borrokatzeko sare bat sortzeko helburuz. Abian dago jada sare hori.

Arabako Batzar Nagusietara ere jo genuen, txostena batzordean azaltzeko.

Kontaktuak

Etengabe izan gara harremanetan, 2018an, Gasteizko Berdintasun Zerbitzuarekin,

eta zenbait bilera egin genituen, Gasteizko Behatokia gauzatzeko helburuz. Orobat, komunikazio-bide bat ireki dugu Bizikidetza Zerbitzuarekin, *“Bide Zuzena, Ibilbide Okerrak. 25 años de historia de los movimientos LGTBQ en Gasteiz”* dokumentala dela-medio.

Halaber, Arabako Foru Aldundiak, Berdintasun Zerbitzuaren bidez, azaldu zuen erasoak antzemateko interesa duela, baita lurraldeko LGTBI+ mugimenduen jardueren berri izateko ere.

María Vidal Arabako gorroto-delituen fiskalari ere helarazi diogu 2017ko txostena, eta zuzeneko harremana dugu harekin, jasotzen ditugun kasuen berri emateko. Gasteizko sindiko andrearekin eta Brusadunen eta Nesken Batzordearekin ere egin izan ditugu zenbait bilera.



5. DATUEN ANALISIA

2018ko maiatzaren eta 2019ko apirilaren artean entitate honek jasotako kasuen zerrenda.

01
KASUA

Data: 2018ko maiatzaren 9a.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzeako telefonoa.

Eragindako jendea: Bi neska lesbiana.

Esparrua/arloa: Aisialdia.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Zuzeneko diskriminazioa. Lesbofobia.

Deskribapena: Bi neska Gasteizko taberna batean, kopa bat hartzen: musukatzen hasi ziren. Tabernako arduradun bat “mozteko” esan zien, beste bezero batzuk molestatu zitzaizketelakoan. Azkenean, tabernatik alde egiteko eskatu zien.

Azterketa: Zuzeneko diskriminazioaren kasu argi bat da, lesbofobiarena. Praktika heterosexualak erabateko askatasunez gauzatu daitezke espazio publikoan, aisialdiko esparruetan. Heterosexualek badute musukatzea eta laztantzea inork tabernatik botatzeko arriskurik gabe, hau da, orientazio sexuala dela-eta diskriminatuak izateko arriskurik gabe. Arau nagusiaren arabera ez diren orientazio sexualak dituzten pertsonak, ordea, beren desirak askatasunez adierazten badituzte, badakite arbuiozko begiradak jaso ditzaketela, eta, horrenbestez, diskriminazioa.

Ez da ohikoa lesbianen aurkako eraso zehatzen berri izatea. Esku artean ditugun datu zehatzen arabera, hau da, daturik ez izatearen ondorioz, pentsa dezakegu ez dela bolleroen aurkako erasorik izaten. Bada, ezta pentsatu ere, lesbianen ikusezintasuna, eta, horrenbestez, haiek nozitzen dituzten erasoek ikusentasuna dira, berez, egon daitekeen lesbofobiaren ekintzarik handiena.

02 KASUA

Data: 2018ko maiatzaren 16a.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzeko telefonoa.

Eragindako jendea: Gay-jendea.

Esparrua/arloa: Espazio publikoa.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Isekak. Homofobia.



Deskribapena: Gasteizko merkataritza-gune batean gay-kolektiboaren aurkako pintadak agertu ziren. Hau zioten: "Gays No" eta "Maricones fuera".

Pintada horien berri eman zuen pertsonak berak ohartarazi zuen polizia-kidego batek jazarri nahi zuela espazio horietan cruising-ean ari zen gay-talde bat.

Azterketa: Espazio publikoetan egiten diren pintaden eta diskurtsoen bidez heterosexualak ez garenon aurkako gorroto-giroa sortu nahi dute, gure askatasuna mugatu, leku jakin batzuetatik bota eta, kasurik onenean, gure askatasun sexuala sasia praktikatzera baztertu. Disidentzia sexualaren edozein zantzurik txoko guztietatik ezabatu nahian, "bakoitzak ohean egiten duena ez da erakutsi behar" argudiatuz.

Cruising-txokoetan ibiltzen diren pertsonak aurre egin behar izaten diote deskontrolatuen biolentziari, baina, batzuetan, baita poliziaren biolentziari ere. Poliziak identifikatzeko eskatzen die, disuaditzeko, praktika horiek jada konkistatu diren espazioetatik kentzeko, espazio horiek erabiltzen baititu heterosexuala ez den jendeak beste pertsona batzuk ezagutzeko eta haiekin harremanak izateko. Jazarpena hori egoteak gogorazten digu, beraz, Arriskugarritasun Sozialaren Legearen nostalgikoak geratzen direla oraindik uniformedun batzuen artean. Moral eta bizikidetzara-heterosexualen errespetuarekiko zorrotasun hori guztia desagertu ohi da, ondo dakigun bezala Gasteizen, agente polizialek artatu eta ikertu behar dituztenean cruising-espazioetan izaten diren erasoak. Halakoetan, indiferentzia bihurtzen da arau, kasu gehienetan.

Gure erantzuna: Gutun bat bidali genion aipatutako merkataritza-guneko arduradunari. Berehala ezabatu zituzten pintada guztiak.



03 KASUA

Data: 2018ko ekainaren 7a.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzeke telefonoa.

Eragindako jendea: Gay-jendea.

Esparrua/arloa: Espazio publikoa/asialdia.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Zuzeneko diskriminazioa. Homofobia.

Deskribapena: Cruising-txoko batean zebilen jendearen aurka basoak botatzen hasi ziren tipo batzuk. Kirol-proba bat egiten ari zen inguruan. Ekitaldi horretarako lan egiten ari ziren udaltzainek ikusi zuten zer gertatzen ari zen. Zauriturik ez zegoela egiaztatu, eta espazioaren erabiltzaile bati jakinarazi omen zioten basoak jendeari botatzea ez dela delitua.

Azterketa: Nolabaiteko zigorgabetasuna dago oraindik ere cruising-txokoetan izaten diren erasoei dagokienez. Espazio horietan erasoak jasaten dutenek diskriminazio bikoitza nozitzen dute erasoen berri ematen dietenean agintariei. Kasu horretan, lehenetsi zen kirol-probaten antolakuntza biktimei eman beharreko arretaren aldean; erasotzaileei emandako babesaz ere zerbait esan genezake. Defendaezina da adieraztea beste pertsona baten aurka basoak botatzea ez dela delitua. Baliteke esaldi oker hori esan zuenak hori esan izana erasoaren ostean sortutako giroa baretzeko, eta kirol-proban betebeharreko lana betetzen jarraitu ahal izateko, gertatutakoari garrantzia kentze aldera. Horrela izan balitz, berriz ere egiaztatuko genuke Udaltzaingoari LGTBI+ kontuen gaineko prestakuntza falta zaiola. Entitate honek eta Udalak berak eskatu dugu prestakuntza hori, baina badirudi Herritarren Segurtasuneko Departamentuak ez diola behar bezala erantzuten premia horri.

Data: 2018ko ekainare 26a.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzeako telefonoa.

Eragindako jendea: Gay bat.

Esparrua/arloa: Etxe pribatua.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Genero berekoen arteko biolentzia. Bortxaketa.

Deskribapena: Udate gauan, parranda egin ostean, lagun baten etxera joan zen (X deituko diogu horri) joan zen salaketa-jartzailea, baita lagun horren beste lagun bat ere (Y).

X-en etxean salaketa-jartzailea eta Y geratu ziren, biak bakarrik eta biluzik, ohe berean. Y hasi omen zen biktimari genitalak ukitzen, eta behin eta berriz eskatzen harreman sexualak izateko; biktimak, berriz, behin eta berriz, ezetz. Biktima mozkor-mozkor eginda zegoen; apenas ez zuen begiak irekitzerik, ezta erasoei erantzuterik ere. Bitartean X kalean zebilen, txakurra paseatzen. Y hasi omen zen X balitz bezala planta egiten, hura ordeztu nahian edo, biktimarekin harreman sexual onartuak lortzeko asmoz. Biktimak behin eta berriz ezetz adierazi arren, Y-k hura penetratu zuen, bortxaz.

X etxera heldu zenean, biktima konturatu zen Yren abusuez. Apurtxo bat hobeto zegoenean, alde egin zuten etxetik, eta salaketa bat jarri zuen Ertzaintzan.

Azterketa: LGTBI+ jendearen arteko harremanen eredu heteroarauari egokitzearen ondorioz gertatzen da genero berekoen arteko biolentzia. Bikote heterosexualen artean emakumeei dagokienez ezagutzen ditugun biolentzia-ereduak kopiatzen dira, “normaltasunaren alde” eta “diferentziaren aurka” etengabe egiten diren deien ondorioz.

Izan ere, sexuan rol aktiboa betetzen duten gay batzuek uste dute gay pasiboaren gorputzaren jabeak direla, haren gaineko nagusitasuna dutela, eta, horrenbestez, beren desiren eta premien arabera baliatu dezaketela bestearen gorputza, edozein harreman sexualetan nagusitu behar den ezinbesteko adostasuna errespetatu barik.

Biktimak kontatu digunez, 6 ordu eman behar zituen zain Ertzaintza-etxean. Egoki tratatu omen zuten. Baina 2 orduz itxaron egin behar izan

zuen ospitalean mediku-txostena egin ahal izateko.

Oso gutxi jakiten da LGTBI+ jendearen artean izaten diren bortxaketez; apenas ezer ez. Ez dago protokolorik, ezta profesionalen artean prestakuntzarik ere kasu horietan erantzuteko, eta errealitate hori ezkututa dago. Kasu gehienetan, biktimek erabat bakarrik egin behar izaten diote aurre kalbarioari, eta ez zaie errespetatzen aitortuak eta serio hartuak izatearen eskubidea. Ez zaie tratu duinik ematen, biktimizazio bikoitza jasaten dute. Gayen arteko bortxaketak ez dira zenbatzen, eta zenbatzen ez dena ez da.

Gure erantzuna: Zuzeneko jarraipena egin genion kasuari, biktimarekin batera. Ibilbide judizialaren berri izan dugu: ez onartutzat jo da (aurrerago aztertuko dugu).

Data: 2018ko ekainaren 30a eta abuztuaren 15a eta 2019ko urtarrilaren 26a.

Jakiteko bidea: Erasoak salatzeako telefonoa.

Eragindako jendea: Gay bat.

Esparrua/arloa: Espazio publikoa/Aisialdia.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Genero berekoen arteko biolentzia. Jazarpena.

Deskribapena: Erasoaren berri eman zigun pertsonari tipo bat ondoan eseri zitzaion, kaleko banku batean zegoenean; bistaz ezagutzen zuen. Deseroso sentitzen zenez, alde egin zuen. Bestea atzetik joan zitzaion, nahiz eta biktimak ez jarraitzeako esan. Tipoak zera ohikatu omen zion: “*Eres un hijo de puta*”.

Hori gertatu ostean, erasotzaileak jarraitu zuen biktima jazarten, ligatzeko aplikazio baten bidez. Hona hitzez hitz botatako mehatxuak: “*Mira gordita, sigue como vas que como te vea por la calle, porque donde te pille ahí terminará tu vida, así que sigue escondido*”, “*Payaso cuando te pille lo primero que haré es romperte los dedos de la mano de uno a uno*”.

Biktimak Ertzaintzari deitu zion. Ertzainak agertu ziren, eta alderdi biei jakinarazi zien zelan jokatu behar zuten. Biktimak salaketa jarri zuen: jasan zituen mehatxuen beldur omen zen.

Abuztuaren 15ean, berriz egin zuten topo biktimak eta erasotzaileak. Egun hartan, erasotzaileak hau esan omen zion salatzaileari: “*Despechada, me has denunciado y es mentira, ahora te voy a denunciar yo a ti*”. Hori gertatu ostean, salaketa handitu zuen salatzaileak, eta besteak beldurra eragiten ziola adierazi zuen berriz.


2019ko urtarrilaren 26an berriz egin zuten topo. Biktima banku batean eserita zegoenean, erasotzailea ondoan jarri zitzaion, eta hanka laztantzen hasi. Biktimak ez jarraitzeako eskatu zion, baina bestea berriz ere hasi omen zen mehatxuka eta irainka. Salatzaileak berriz ere handitu zuen salaketa epaitegiaren aurrean.

Azterketa: Oraindik ere asko geratzen da egiteke genero berekoen arteko biolentzia aintzat hartu eta legez gaiari ekiteko. Ezinbestekoa da errealitate hori biolentzia zisheteropatriarkalaren partetzat jotzea, jarduera-protokoloak sustatzeko eta haren biktimak direnei behar bezalako tratua eman ahal izateko.

Ez zen nahikoa izan salaketa bi aldiz handitu izana, ezta salaketa-jartzaileak behin eta berriz aipatzea beldur zela ere, kautelazko neurriak hartzeko: urrutiratzeko agindu bat, esaterako. Salaketa bakoitza jarri ostean berriz ere erasoak izan ziren, bai eta biktimari salaketak jartzeko mehatxuak ere.

Prozesu mota horietan, delitu arintzat jotzen baitira, ez dago abokatu defendatzaileraren beharrik. Biztanleriaren parte handi batek prekarietatean bizirauten duenez, mugatuta du Zuzenbideko profesionalengana jo ahal izateko aukera, baita doako justiziarako irispide izatea ere. Letradunen laguntza ez da ezinbestekoa prozesu mota hauetan. Gauzak horrela, ez daude behar diren tresnak biktimaren interesetarako behar diren bermeekin ekiteko prozesu hauei.

Gure erantzuna: Laguntza eta babesa eman diogu biktimari prozesu guztian zehar.



Data: 2018ko uztailaren 11.

Kasua ezagutzeko bidea: Komunikabideak eta sare sozialak.

Eragindako jendea: Transexual bat.

Esparrua/arloa: Igerileku publikoak/kirola.

Lekua: Gesaltza.

Tipologia: Zuzeneko diskriminazioa. Transfobia.

Deskribapena: Igerileku publiko bateko sokorristak eragotzi zuen adingabe transexual bat, udalekuetan zebilena, kamiseta jantzita bainatzea. Genero-transitzioan dabil pertsona hori, eta une horretan ez zuen bere gorputza erakutsi gura. Begiraleek eman zioten egoera horren berri sokorristari, baina harek tinko erantzun zuen ezin zela kamiseta jantzita bainatzerik.

Azterketa: Instalazio publiko batzuetan gertatzen da. Berriz nabarmentzen da erakundeek kontratatutako pertsonen prestakuntza falta zaiela LGTBI+ gaien inguruan.

Den-dena arautzeko eta janzteko moduak homogenizatzeko etengabeko maniak kale egiten du, eta mota honetako egoerak ekartzen ditu. Arau eta kultura hegemonikoetatik kanpo dauden errealitateak kontuan hartu gabe egiten dira janzkerari buruzko protokoloak; kasu honetan, gatazka ez dator igerilekuan arropa erabiltzetik, baizik erabiltzen den arroparen zentimetroetatik. Bestela, gatazkaren gaia arropa erabiltzea balitz, araua biluzik bainatzeko derrigorra izango litzateke.

Arauak, ordea, ezartzen digu zer janzkera mota erabili gure generoaren arabera, baita piszina batean ere. Arau horiek ezin dira higiene-arrazoetan oinarritu, moraletik eta kultura normatiboaren inposiziotik baizik.

Alde positiboan azpimarratu behar dugu kanpamenduko kideek eta begiraleek izandako erreakzioa, denak batera kamiseta jantzita bota baitziren piszinara, beren elkartasuna erakusteko. Zuzeneko ekintza izan zen, desobedientzia zibilarena. Gure babes eta miresmen guztia dute halakoek, eredugarriak baitira horrelako kasuetan zelan jokatu behar den jakiteko.

Gure erantzuna: Komunikabideetan salatu genuen gaia.

ALUAK
12 de julio de 2018 ·

🚩🚩🚩 **¡Discriminación transfoba a un menor del campamento Gazte Rock en las piscinas de Salinas de Añana!** 🚩🚩🚩

Durante estos días de julio se ha celebrado el campamento Gazte Rock organizado por Hell Dorado y ofertado por el Instituto de Foral de la Juventud de Álava. Este campamento está dirigido a jóvenes de 16-17 años con inquietudes musicales.

En la jornada de ayer, 11 de julio, lxs chavalxs estaban disfrutando de un día de baño en las piscinas públicas de Salinas de Añana. Uno de los menores trans fue vetado del baño por llevar una camiseta que cubría su torso. El socorrista (ex legionario) le prohibió explícitamente el baño a pesar de hablar con las monitoras de los menores y éstas haberle explicado la situación.

En solidaridad ante tal discriminación, todxs lxs compañerxs del campamento se lanzaron a la piscina con camiseta mostrando todo su apoyo y al grito de "con camiseta". El socorrista acabó por expulsar a todo el campamento de las piscinas y llamando a la Ertzaintza.

Ayuntamiento y Diputación han sido alertados de este caso y tienen pleno conocimiento de los hechos pero parece que no quieren que se difundan.

Todo nuestro apoyo y solidaridad con el menor que ha sufrido esta discriminación transfoba por parte de un socorrista público. ¡Aúpa esa chavalería solidaria del campamento Gazte Rock, con esta juventud sí que hay futuro!!



GasteizBerri

'Lumagorri HAT' condena el episodio transfobo ocurrido en las piscinas de Salinas de Añana

Lumagorri HAT condena el episodio transfobo ocurrido en las piscinas de Salinas de Añana y pide a las instituciones una formación adecuada y obligatoria. Este es su comunicado:

Ante el episodio de transfobia acontecido recientemente en las piscinas municipales de Salinas de Añana, LUMAGORRI HAT quiere expresar su máxima condena a este tipo de agresiones transfóbicas y reclama a las instituciones que todo el personal, directo o subcontratado, reciba formación adecuada y útil de cómo se debe tratar a toda la población, incluidas las personas trans.

Para LUMAGORRI HAT, el hecho, ya de por sí inadmisible, adquiere una mayor relevancia al ocurrir en un recinto público y con el agnóstico contratado para dar un servicio público como es el de atender unas piscinas municipales.

La transfobia debe erradicarse de la sociedad, en todos sus frentes, si bien es fundamental comenzar por los servicios públicos, ya que las instituciones tienen mayor capacidad de respuesta al respecto y poseen los competencias y los recursos necesarios. Es una cuestión de mera voluntad política. Sin embargo, año tras año comprobamos como, a la hora de comprometer recursos, los compromisos institucionales con la diversidad sexual y de género se quedan en papel mojado.

Finalmente, LUMAGORRI HAT considera que la respuesta del grupo de jóvenes frente a la agresión transfoba fue ejemplar y anima a toda la sociedad a responder ante este tipo de ataques a los Derechos humanos y a la dignidad de las personas.

NOTICIA ANTERIOR
Desobediencia y solidaridad transgresen en la piscina de Añana

PRÓXIMA NOTICIA
Gasteiz anuncia bajo una tormenta que pedirá agitar a la tropa del día

2 Comentarios

Prigbook: Desobediencia y solidaridad transgresen en la piscina de Añana - GasteizBerri

del 12 JULIO, 2018
"Prigbook" dice algo: vale a caso sólo a imponer nuestros normas? atropellamos y mal educamos, una muestra de cultura los habéis de a todo, y a los (presuntos) dñes, degenerados.
Responder del

Dejar un comentario
Loguéate en tu cuenta. Loguéate?

Un socorrista impide bañarse a un menor transgénero por no quitarse la camiseta

El adolescente había acudido a las piscinas de Salinas con sus sesenta compañeros de colonias, que se lanzaron al agua vestidos en su apoyo

DAVID GONZÁLEZ
VITORIA. La jornada de esparcimiento que los integrantes del campamento 'Gazte rock', dependiente de la Diputación alavesa, iban a disfrutar el miércoles degeneró en un resonante episodio de intolerancia o, al menos, de exceso de celo difícil de explicar. Los sesenta chavales participantes en esta colonia musical acudieron a las piscinas de Salinas de Añana y acabaron expulsados por el socorrista. Según ha sabido este periódico de familiares de los afectados, todo empezó cuando este trabajador impidió bañarse con la camiseta puesta a un menor transgénero. Este adolescente, que se encuentra en pleno proceso de adaptación física a su identidad de género real, trató de bañarse con la prenda puesta por pudor. Sin embargo, al parecer, el socorrista le negó la entrada a



Los jóvenes se solidarizaron y se zambulleron con camiseta. ■ ■ ■

la pileta hasta que no se desprendiera de la camiseta. Argumentó que el reglamento sólo permite bañarse con ropa destinada a ese fin y no con camiseta de algodón.

Tampoco cedió cuando otros jóvenes y monitores de la colonia trataron de explicarle las razones del comportamiento del menor trans

género. El vigilante, contratado para la campaña de verano, se mantuvo firme en su negativa en todo momento. Es más, los familiares hablan de «tono amenazante» por parte de este adulto en varias fases del intercambio de opiniones.

Tras zepugnarse al acoso inicial por la situación, el resto de menores

hizo un coro y, entre todos, decidieron solidarizarse con su compañero. Todos se pusieron sus camisetas y se encaminaron hacia la piscina. Querían mostrar así su apoyo al adolescente. Pero, de nuevo, se toparon con el socorrista.

Supuestamente les dio el alto y les advirtió de que todos acabarían en la puerta si no depositaban su actitud. El trabajador incluso amenazó con llamar a la Ertzaintza. Pero se lanzaron en grupo al agua -como se aprecia en el vídeo publicado ayer en elcomercio.com-. Así que finalmente lo hizo.

Fuentes policiales consultadas por EL CORREO reconocen que se recibió una comunicación desde Salinas de Añana. En ella, un hombre alertaba de un «tumulto» en las instalaciones. De ahí que se enviara al complejo municipal a una patrulla.

Cuando los uniformados llegaron a Salinas de Añana, se encontraron que no existía «tumulto» alguno. Los chavales, acompañados por sus monitores, se hallaban ya fuera de las instalaciones. Sin poder darse un respiro, aunque orgullosos por su muestra de solidaridad con su compañero vetado.

Este episodio sorprendió en la localidad alavesa, donde miles de personas acuden cada verano a sus piscinas sin que nunca haya ocurrido ningún episodio similar, precisaron desde el Ayuntamiento. En este sentido, lamentaron el incidente y manifestaron su rechazo ante todo tipo de actitudes discriminatorias. La asociación Lumagorri lo calificó de episodio de transfobia y lo juzgó «inadmisible».

CIUDADANOS | 11

Data: 2018ko uztaila.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzekeo telefonoa.

Eragindako jendea: Herritarrak, oro har.

Esparrua/arloa: Espazio publikoa. Kalea.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Isekak. Gorroto diskurtsoa. Misoginia.

Deskribapena: Soltero-agurra ospatzen ari zen talde bat, txaranga eta guzti, Aiztogile kalean. Taldeko kide bat moxorrotuta zihoan: bainujantzia jantzita, bular itzelak eta txima luzeak genitaletatik begi-bistan. Txarangaren musikaz lagunduta, hau kantatzen zuten: “*Maricón en el que no bote*”.

Azterketa: Ohituta gaude “soltero-agurretan” mota guztietatako adierazpenak ikusten, genero-kontuez, transexualitateaz eta misoginiaz. Halakoetan, gizon zuriak agertzen dira, samaldan, kasu askotan moskor-moskor eginda edo hala amaitzeko bidean, aztoratuta, eta zentzu kritikorik izateko batere gaitasunik gabe, gure kaleetan, udaberriarekin bat, beren begiraden eta interpelazioen bidez guri rol eta diskurtso erabat misoginoak eta transfoboak onartzen exijitu guran.

Ezin onartuzkoa da gure kaleetan emakumeen gorputza ikuspegi transfobo batez irudikatzea edo erridikulizatzea. Ezinbestekoa da espazio erkideetan “aisialdi” mota batzuk arbuiatzea, baita debekatzea ere.



08
KASUA

Data: 2018ko abuztuaren 5a.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzeke telefonoa.

Eragindako jendea: Ez ezaguna.

Esparrua/arloa: Espazio publikoa/ Aisialdia.

Lekua: Zigoitia.

Tipologia: Zuzeneko diskriminazioa. Homofobia.

Deskribapena: Goizean goiz tipo batzuk cruising-zona batera joan ziren autoan, eta han hasi ziren oihuka bertan zeuden pertsonen aurka, eta haiei harriak botatzen. Bertan aparkatuta zeuden auto batzuetako gurpiletan eta kristaletan kalteak eragin zituzten.

Azterketa: Gero eta ohikoagoa da cruising-espazioetan jazarpenak egitea, baita zona horiek biztanleria dagoen zonetatik urruti daudenean ere, kasu honetan gertatzen den bezala. Ideologia batzuek mugatu nahi dute espazio publikoa heterosexualak ez direnei. Ideologiez ari gara, ulertzen baitugu gertakari horiek ez direla kasualitatez izaten, ezin dela ulertu kasualitatean oinarrituta aparte dagoen zona batera joatea tipo batzuk autoan, iraintzeko, erasoak egiteko eta kalteak egiteko ibilgailuetan. Horregatik kontu ideologikotzat jotzen dugu han gertatutakoa.

Gure erantzuna: Zigoitiako auzokideei eta Udalari eman genien jaso genuen informazioa. Oso positibotzat jotzen dugu alkatearen eta udalaren jarrera. Komunikabideetan salatu genuen gertatutakoa, eta hura arbuiatzeko mobilizazioa egin genuen.

Data: 2018ko abuztuaren 21a.

Kasua ezagutzeko bidea: Hirugarren pertsona batzuk.

Eragindako jendea: Emakume transexual bat.

Esparrua/arloa: Aisialdia

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Transfobia. Biolentzia matxista. Bortxaketa.

Deskribapena: Emakume transexual bat ordu txikietan ostalaritza-lokal batean; bera eta jabea baino ez zeuden bertan. Negozioa itxi ostean, jabeak behin eta berriz bortxatu omen zuen emakumea. Azkenean, biktimak mehatxua jaso zuen: salaketa jarritz gero, hil egingo zuela esan omen zion besteak.

Azterketa: Emakume transexualek biolentzia ugari jasaten dute, zenbait kontu direla-eta: haien genero-identitatea, bazterketa soziala, etnia edo kultura... Ardatz horiek guztiak hartu behar dira kontuan diskriminazioaren edozein kasuri ekiterakoan.

Transexualak biolentzia matxistaren biktimak ere badira: bortxaketak, tratu txarra eta jazarpenak nozitzen dituzte-eta. Haietariko asko egoera prekarioan bizi dira, eta hori zuzenean dago lotuta haien zaugarritasunarekin.

Gure erantzuna: Sidalava entitatearekin hitz egin genuen, hura biktimarekin harremanetan dagoelako. Mugimendu feministarekin batera kooordinatu genuen salaketarena.

10 KASUA

Data: 2018ko urriaren 25a.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzeako telefonoa.

Eragindako jendea: Gay marrokiar bat.

Esparrua/arloa: Udal-zentroa.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Zuzeneko diskriminazioa. Homofobia.

Deskribapena: Pertsona horrek kontatu zigunez, urriaren 25ean baliabiderik gabeko pertsonentzako udal-zerbitzu batean artatu zuten. Dirudienez, gay ikusgai bat izateak (armairutik at), eta, aldi berean, arraza zurikoa ez, arazo asko ekarri dizkio zerbitzu horretan. Bertan egon zen bitartean zenbait aldiz kexatu da zentroaren erabiltzaileek eta langile batek emandako tratua rengatik. Izan ere, aipatu langileak jakinarazi zien gainerako erabiltzaileei gure elkarrizketatua gay dela, eta esan omen zien harekin kontuz ibiltzeko. Kontatu zigun, orobat, udal-baliabidean irainak jasaten zituela, komunetan jazarpenak (lanbasako ontziko ura gainetik botatzea ere), baita umiliazioak ere.

Hori gertatu ostean, badirudi zenbait erabiltzaile kexatu zirela: biktima intsinnuatzten ibili omen zela zioten. Salaketa horiek ere beste umiliazio bat dira harentzat.

Hori guztia dela eta, baliabideak laguntza kendu zion.

Azterketa: Gasteizen egiteke dago diagnostiko bat gizarte zerbitzuetan LGTBI+ jendeari ematen zaion harreraz, non aztertu beharko baita zer portzentajetan ematen den eta zer profil duten langileek LGTBI+ jendea hartzeari eta artatzeari dagokionez, arraza, jatorria eta etnia kontuak ere kontuan hartuta. Agindutakoa ahaztuta, gaur egun ez dago LGTBI+ jendearentzako protokolo espezifiko bat zerbitzu sozialetan. Profesionalek ez dute jaso prestakuntza espezifikorik dibertsitate sexualari edo genero-identitateari buruz. Udal-eremuaren berdintasun-politiketan behin eta berriz aipatzen den ikuspegi interseksionalak ez du zeharkatzen, ordea, Politika Sozialen Departamentua, hain zuzen ere, arraza, jatorria, etnia edo klase ardatzak gehien lantzen dituen bada ere.

Gure erantzuna: Gertatutakoaren berri eman genion, gutun bidez, Berdintasun Zerbitzuari, Berdintasun-zinegotziari, alkatetzazuzendariari, politika sozialen arduradun zinegotziari eta Politika Sozialen Departamentuko zuzendariari.

Berdintasun-zinegotziak eta zerbitzuak baino ez ziguten erantzun.

11

KASUA

Data: 2018ko abendua.

Kasua ezagutzeko bidea: Erasoak salatzeke telefonoa.

Eragindako jendea: Gayak.

Esparrua/arloa: Aisialdia.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Zuzeneko diskriminazioa. Homofobia.

Deskribapena: Komunikatzaileak bere mutil lagunarekin joan zen Gasteizko alde zaharreko taberna batera, eta kontsumizio bat eskatu zuen. Han hasi ziren begiradak eta kontsumisioaren prezioari buruzko bromak. Geroago mahai batean eseri zirenean, kamareroak, haiei begira, kamiseta erantzi zuen. Kamareroa hasi omen zen lagun batekin ozen hitz egiten “marikei” buruz: “hiltzea mereziko zutela” esan zuen. Komunikatzailea eta bere mutil laguna deseroso sentitu ziren, eta alde egin zuten.

Azterketa: Heterosexuak edo normatiboak ez diren harremanak ikustarazten direnean, burlak, komentarioak, zeharkako begiradak sortzen dira. Batzuetan, biktimak intimitatuak sentitzen dira, eta, beste batzuetan, eraso fisikoak noitzen dituzte. Espazio batetik alde egin behar izatea eraso fisiko bat jasatearen beldur gure genero-identitatea eta orientazio sexualaren askatasuna mugatzea da. Gogoratu behar dugu Gasteizko LGTBI+ biztanleriari buruzko Diagnostikoa egiteko inkestatutako % 43k egiaztatu dutela aisialdi-espazioetan diskriminatuak sentitu direla, eta % 57k espazio publikoan.

Data: 2019ko apirila.

Kasua ezagutzeko bidea: Ostalaritzako lokaletan jarritako kartelak.

Eragindako jendea: Herritar guztiak.

Esparrua/arloa: Aisialdia.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Isekak. Uzkifobia.

Deskribapena: Argitalpen humoristiko ezagun baten azala iragartzen duten kartelak: hiru politikarien karikaturak agertzen dira, uzkia hanpatuta dute, botoa uzkian sartzeko eskean dabiltza.

Azterketa: Uzkie irain bezala erabili dute, uzki bidezko sexua txarrena balitz bezala. Hiru politikarien irudia, eta gonbidapen bat: haiek botoaren bidez penetratzea, botoa gorputzaren atalik txarrenean sartzea, atalik zikinenean. Horrela jende askoren praktika sexual bat laidotu nahi da, ez bakarrik gay edo marikena, "ipurdia jende guztiak dauka eta". Pertsona guztiek erabil dezakete uzkie sexua praktikatzekoan, alde batera utzita beren genero-identitatea edo sexu-orientazioa. Iruditeria heteronormatiboan, ordea, zulatu daitekeen ipurdia da gayena edo marikena, zeinek aldi berean zakil bat behar duten hori egiteko, aktibo/pasibo rola hartuz. Binarismo bat da, gizona/emakumea, penetratzailea/penetratua kategoriak errepikatu nahi dituen, eta patriarkatuaren botere- jarrerak ere bai.



Data: 2019ko apirilaren 18a.

Kasua ezagutzeko bidea: Komunikabideak.

Eragindako jendea: LGTBI+ kolektiboa.

Esparrua/arloa: Komunikabidea (Cadena SER)

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Isekak. Gorroto diskurtsoa. LGTBI+fobia.

Deskribapena: Elkarriketa bat egin zitzaion Juan Carlos Elizalde Gasteizko apezpikuari. Galdetu zioten Alcaláko apezpikuak homosexualitatea sendatzeko emandako ikastaroez. Hona galdera horri dagokion elkarriketaren zatia, hitzez hitz:

Hay personas que no se sienten cómodas en su cuerpo, en su orientación sexual

¿No se trataba de curar a homosexuales? El secretario de la conferencia episcopal lo dejó bien claro, la curación en la iglesia no es tanto medica, no es nuestro campo, no es nuestra responsabilidad, no somos especialistas, como acompañamiento.

¿Pero usted considera que necesitan ser curadas las personas homosexuales? hay heridas en esas personas, como en todas, sí, que esas heridas, necesitan un acompañamiento, necesitan una ayuda.

¿Pero heridas que luego condicionan su orientación sexual? heridas afectivas, heridas relacionales, sí.

¿Y ahí se puede hacer un acompañamiento? curativo, sí, sí, sanante, no estamos hablando directamente en el sentido médico, quirúrgico.

¿Pero me esta diciendo que hay heridas que tienen específicamente personas homosexuales que se pueden acompañar? En amplia gama de posibilidades y orientaciones, si una persona quiere que se le ayude en un camino determinado para reconocerse mas armónicamente en su propio cuerpo, esa persona tiene derecho, igual que otra persona.

Azterketa: Elizaren dotrina misoginoa eta LGTBIfobikoa da, eta kolektiboaren aurkako gorroto-diskurtsoak sustatzen ditu. Askotan esaten da homosexualitatea ez dela gaixotasun bat; homofobia, bai, ordea. Homofobia gaixotasun mentalen kapituluan sartzeak ez du laguntzen ulertzen LGTBIfobiaren sorrera eta jatorria.

Adierazpen horiek ideologia zisheterosexista baten eremuan sartzen dira, non arau heterosexuala eta misogina baitira iparorratza, eta etengabe diskriminatzen dira LGTBI+ jendea eta emakumeak.

Elizak askatasun osoz bultzatzen du gorroto hori; pertsona batzuek, ordea, errepresioa jasaten dute pederastia salatzeagatik. Horren adibide on bat da Abel Azcona artistarena, zeinak zitazio judizial ugari izan baititu azken hori egiteagatik.

Testuinguru horretan ezin dugu ahaztu erakundeek elizari ematen dioten babes, bai onura fiskalen bidez edo umeek eta gazteek hezkuntza katolikorako irispidea izatea ahalbidetzen.

Data: 2019.

Kasua ezagutzeko bidea: Hirugarren pertsona batzuk.

Eragindako jendea: Gay-jendea.

Esparrua/arloa: Espazio publikoa /Aisialdia.

Lekua: Gasteiz.

Tipologia: Zuzeneko diskriminazioa.

Deskribapena: Cruising-ean ibiltzeko espazio batean bortxaz lapurreta bat eta ustez eraso fisiko bat egon zirelako berri eman ziguten.

Azterketa: Gay-aisialdirako espazioak (cruising-espazioak, esaterako) defendatu beharra azpimarratzen dugu berriz, eta edozein erasotatik babestu beharko liratekeela.

6. ISLA KOMUNIKABIDEETAN ETA ERANTZUN EKINTZAK

PRENTSA IDATZIA

6

Diario de Noticias de Álava — Miércoles, 16 de mayo de 2018

Araba

El activismo documenta al menos 15 agresiones a personas LGTBI en un año

La Red Transbollomarika da cuenta de un ejercicio “especialmente grave” en vísperas del Día contra la LGTBI-fobia



✎ Carlos Mtz. Orduna
✉ Jorge Muñoz / J. Bergasa

